Sherlock Holmesen Azken Misterioa

-Oh, Watson maitea, pozten nau zu ikusteak! Hainbeste denbora...!
-Hala da, Holmes, aspaldi ikusi gabe eta bisita egitea pentsatu nuen.
-Zein ondo! Horrela esku artean daukadan misterioa argitzen lagunduko didazu.
-Zein misterio, Holmes?
-Hara, ikusi argazki hau. Nire eskuetara iritsi da, baina ez galdetu nola edo zergatik! Gaur aurkitu dut lurrean, norbaitek han utzi izan balu bezala!
-Tira, Holmes, nik ez dut gauza berezirik ikusten...
-Jakina, Watson maitea! Zuk ez daukazu nirea bezalako burua! Baina arretaz aztertzen baduzu, gauza bitxiak topatuko dituzu. Adibidez, ... **(el sombrero de encima de la mesa)** nirea bezalakoa da, eta halakoxeak dira ..... **(la pipa y la lupa de encima de la otra mesa)** ere. Bestalde, ... **(la alfonbra de debajo de la mesa)** Kiristango herrixka batekoa da, irudi motan ikusi dezakezunez, eta oso arraroa da Londresen halakorik aurkitzea; areago, nik esango nuke hiri honetan bakarra ikusi dudala, non eta Baker kaleko gure apartamentuan! Lishir printzesak oparitu zidan bere kasua argitzeagatik!
-Baina, Holmes...
-Zaude, zaude, oraindik ez dut bukatu eta. Ikusi .... **(el sillón de delante de la chimenea)**. Horrelako batean esertzen dira nire bezeroak arazoren bat kontatu behar didatenean! Eta ikusi .... **(las estanterias junto a la chimenea)**. Ez al dira artxiboak gordetzeko erabiltzen ditudanak bezalakoak? Oso arraroa da dena! Hara zer esaten dizudan, Watson maitea, ziur nago ..... **(por la ventena de detras de la mesa)** begiratuz gero, Baker kalearen antzeko kalea ere ikusten dela!
-Jakina, Holmes maitea, argazki hori zure gela zaharrekoa delako, zure gela eta zure argazkia, Baker kaleko gure apartamentu zaharra! Zenbat urte joan diren!
-Apartamentu zaharra? Eta non nago ni orain?
-Zahar etxean, Holmes maitea, zahar etxean! Ondo zaintzen zaituzte hemen?